



# Enpresentzako zirku tailerrak




# Argiak piztu dezagun!

Motibatu eta taldea eraiki? Irakatsi? Mugak gainditu? Sormena suspertu? Komunikazio- eta interakzio-espazio berriak sortu? Entretenu? Ilusioa piztu? Esana eta egina. **Zirkozaurren** ulertzen dugu **'TeamBuilding'-a** birusei aurre egiteko egiten diegun modu berean: **Zirkua eginez**. Zirkua tresna eta ibilgailu gisa. Zirkua jarrera positibo gisa. Zirku eta zirku gehiago bere egungo bertsioan.

**Eszenatokia aldatzea proposatzen dizuegu.** Askoz hobeto! Igo dezagun hoberenatariko batera. Benetazko zirku batera.

Agur bulegoak, errutinak eta konbentzionalismoak. **Orain amestutako bizitza baten protagonistak izango zarete.** Lotsagabeagoa, erlaxatuagoa eta testuinguru artistiko batean. Adi egon, ikasiko eta biziko duzuelako! Hunkituko zarate eta orain arte ezagutu ez duzuen zuen hainbat aurpegi garatuko dituzue. Eta, batez ere, primeran pasa. Elkarrekin, taldean.

**Argiak piztu dadila.** Eskujokoak sar daitezen, akrobaziak, aéreoak, orekak... Guztia prest daukagu. **Ikuskizuna hastear dago.**



# Zergatik enpresentzako zirkua?

Gustatuko litzaiguke zuek zirkua hurbiletik ezagutzea, guk zirkuan sinesten dugulako. Badakigu **Zirkozaurreko tailerrak** zer pizten duten, besteak beste, enpresentzako eta langileentzako hurrengo onurak:

- Espazio moldakorrak, erosoak eta konfiantzazkoak sortzen dituzte
- Izotza apurtzen dute
- Parte-hartzea eta talde lana suspertzen dute
- Pertenentzia-sentimendua indartzen dute
- Komunikazioa sustatzen dute
- Sormenaren inspiratzaile dira
- Loturak sortzen dituzte
- Gatazkak eta tentsioak murrizten dituzte
- Berrikuntzari bide ematen diote
- Rolak erakusten dituzte
- Autoestimua hobetzen dute
- Elkar ezagutzen laguntzen dute
- Irribarreak eragiten dituzte
- Parte-hartzaileen errendimendua eta motibazioa handitzen dute

signs of the island being brought back to life anyway, I had

**“Talde motibatuak % 44  
gehiago ematen du eta  
langileen konpromisoa  
% 27an handitzen du”**

# Gure zirku tailerrak

**Prestakuntza-jarduera malguak eta pertsonalizuak** antolatzen ditugu, **gorputza eta burua modu sortzailean lantzea** eskaintzen dituztenak. Parte-hartzaileen irudimena, autokonfiantza eta gaitasun artistikoak sustatzen ditugu, zirkuaren mundura hurbilduz. Ez da esperientziarik behar, ikasteko gogoia eta jarrera ona besterik ez.



## DIZIPLINAK

**Tailerrean diziiplina desberdinak landuko dira enpresak proposatutako helburuen arabera.** Parte-hartzaileen kontzentrazioan eragiteko, adibidez, esku jokoak eta oreka tailerrak egiten ditugu. Talde-lana sustatzeko taldeko akrobaziak egokienak dira. Airekoek beldurra galtzen eta arrisku-egoerei aurre egiten laguntzen dute. Eta zerbait dibertigarriagoa eta lasaiagoa nahi izanez gero, aurrekoaren mix bat edo clown tailer bat irtenbidea izan daitezke.

### ESKU JOKOAK

Zapiak, pilotak, diabolok, mazoak, plater txinatarrak, devil stick... Koordinazioa, kontzentrazioa eta motrizitatea lantzen dira, jolasaren eta elementuekiko trebetasunaren bidez. Hasteko, esku jokoaren azalpen orokor bat ematen da, bat, bi edo hiru zapiekin, ondoren pilotekin, mazoekin edota beste elementuekin saiatzeko. Gainera, diaboloren mugimenduaren oinarriko jokoak eta plater txinatarraren biraketa erakusten dira, haien aldaerekin.

### AKROBAZIAK

Alde batetik, bertikalak eta akrobazia indibidualak. Bestetik, taldeko akrobaziak. Diziiplina soziomotrizitate gisa defini dezakegu, non beti dagoen kide baten edo batzuen presentzia, haien ekintza motorrak sinkronizatuz giza irudiak edo piramideak egitea lortzen dutenak. Elkarlaneko jarduera bat da, "euskarria" edo oinarri bat duena, eusten duena, eta "arina", euskarriaren gainean malgutasun-, oreka- eta konbinazio-elementuak egiten dituenak.

### OREKAK

Zankoak, pedaletak, oreka-bolak, erruloa, errulo erdia... Elementu batekin oreka lantzen dugu. Kontzentratzea eta gure gorputzaz jabetzeko momentua da: hartzen ditugun posizioak, gure grabitate-zentroa, etab.

### AIREKOAK

Aireko akrobazietan hastea (trapezioa eta oihalak) oinarriko koordinazio motore guztiak ikastea du helburu: eskuak, oinak, konbinatuak, erritmikoa eta jarrera... gero elementuaren bidez gorputza airean maneiatzen hasteko. Jarduera honetan bereziki garrantzitsua da gorputzaren ezagutza sakona bere mugimendu-aukera guztietan barneratzea, bai eta norberarengan eta kideengan konfiantza izatea ere.



# Gure zirku tailerrak

## INSTALAZIOA ETA MATERIALAK

Tailerrak gure espazioan nahiz enpresa kontratzailearen instalazioetan egin daiteke. Azken kasu horretan, jarduerak garatzeko espazio egokia beharko da, normalean diafanoa eta koltxonetak dituena, eta Zirkozaurrek material espezifikoak eramango ditu. Airekoak eskatuz gero, ezinbestekoa izango da gure teknikarietako baten bisita ainguraketa-puntu segururik dagoen egiaztatzeko.

## MONITOREAK

15 ikasleko begirale bat jartzen dugu. Taldea handiagoa balitz, Zirkozaurrek baloratuko luke bigarren monitore bat sartu behar den ala ez, eta horrek ekarriko lukeen kostu erantsia.

## HIZKUNTZA

Tailerra gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez eman daiteke (eskuragarri ditugun monitoreen arabera).

## IRAUPENA

1-2 ordu.

## SEGURTASUNA

Segurtasuna bermatzen dugu gure jarduera guztietan. Era berean, COVID-en aurkako prebentzioaren arloko protokolo zorrotzena betetzen dugu.

## PREZIOA

Neurrira egindako tailerrak antolatzen ditugu. Prezioa kasu bakoitzean aukeratzen den aukeraren arabera izango da. Galdetu konpromisorik gabe.



## Zirkozaurre, Bilboko zirku-arten espazioa

**Zirkozaurre** Zorrozaurreko Erriberan, Bilbon, kokatutako zirku-arten espazioa da. **Sorkuntzarako, formakuntzarako eta erakusketarako zentroa** gara. Zirku konpainia bat daukagu eta zirku garaikideko ikuskizunak antolatzenditugu. Gure instalazioetan beste artistak hartzen ditugu egitza artistikoen bidez.

Diziplina askotako ikastaro erregularrak jasotzen dituen zirku eskola bat dugu. Eta udaletxeentzat, ikastetxeentzat, enpresentzat eta partikularrentzat tailer egokituak egiten ditugu. Esperientzia zabala dugu eta irakasle onenak, denak giro honetan profesionalki jarduten dutebak.

Zirkozaurren 6 urte baino gehiago daramatzagu helburu nagusi bat duten proiektuak garatzen: **Euskadin zirkuaren sektorea profesionalizatzea.**





**Gehiago jakin nahi duzu?**

**Galdetu!**

**ZIRKOZAURRE**

Deustuko Erribera 70B - Antigua Fábrica de Artiach en Zorrozaurre.  
48014 Bilbo (Bizkaia)

[www.zirkozaurre.com](http://www.zirkozaurre.com)  
[zirkozaurre.mediacion@gmail.com](mailto:zirkozaurre.mediacion@gmail.com)  
946 521 038 / 640 636 929

